



SALBATORE MITXELENA IKASTOLA  
MARIA ETXE-TXIKI KALEA 14  
20800 ZARAUTZ



**HERRI ONURAKO**  
KOOPERATIBA

Mugikorraren erabileraren inguruko hausnarketa egin dugu bai etapa ezberdinetan, bai Azpibatzerde Pedagogikoan ere. **AURREZ AURREKO KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK** lehenetsun osoa izango du gurean. Bestetik, gu geu ere ikusten ari gara urteen joan-etorrian jolas-garaian mugikorrari begira daudenen kopurua handia dela eta bateraezina jolas-garaia eman nahi diogun eraldaketarekin.

Nola ez, gogoan dugu ere zenbaitetan sare-sozialetan emandako erabilera desegokia. Tarteka, ondorio kaltegarriak ere ikusi eta bizi izan ditugu gure komunitatean, baita zuetako batzuk ere ere. Ondorioz, **ez dugu onartuko mugikorra erabiltzea eskola orduetan (jolas-garaiak barne) ezta irteeretan ere.** Ekarri ala ez, hori zuen kontua da, noski.

Salbuespenak: zenbait mendi irteera, DBH3ko eskiatzeko irteera eta DBH4koen azken bidaia. Irteera jakin hauetan, hain justu, bakarrik dabilzan zenbait momentutan gure kontrolpetik kanpo, **galdu / min hartzeko arriskuari azkarrago erantzuteko gai garela ikusi dugulako.**

Salbuespena izango da ere irakaslearen baimenez eta beti ere bere ardurapean lan-tresna gisa erabiliko bada.